

# EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2016ko 2. hiruhilekoa

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

OGASUN ETA FINANTZA  
SAILA  
*Ekonomia eta Planifikatza Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y FINANZAS  
*Dirección de Economía y Planificación*



## LABURPENA

EAEko ekonomiak %3,2 areagotu zuen bere BPGa 2016ko bigarren hiruhilekoan, urte arteko tasan. Horri esker, dagoeneko lau hiruhilekoz jarraian eskuratu ditu %3,0tik gorako emaitzak, sendotasun esanguratsua erakusten duen bilakaera batean. Izan ere, bigarren hiruhilekoko datuak hamarren bakar batean moteldu du urte hasierako hazkundea. Apaltze arin hori Europako herrialdeen artean ere gauzatu zen. Hala ere, azken horien erritmoa EAEko ekonomiarena baino nabarmen motelagoa da. Zehazkiago adierazita, Europar Batasunak, oro har, %1,8ko gehikuntza eskuratu zuen epealdi horretan eta Eurogunea, berriz, %1,6 hazi zen. Orobat, hiruhileko arteko tasa %0,8 izan zen EAEn, Europarena bikoiztuz. Horrek etorkizuneko bilakaera hedakorra izango dela eta europar ekonomiekiko diferentzial nabarmena egongo dela bermatzen ditu.

Hazkunde prozesu horrek orekari eusten dio kanpoko ekonomiekin eta hala esportazioak nola inportazioak, termino errealean, erritmo onean eta antzeko tasatan hazten ari dira. Horri esker, kanpo saldoaren ekarpena gehikuntzari txikia da. Une batzuetan hamarren gutxi batzuk kendu dizkio hazkundeari, bigarren hiruhilekoan gertatu den bezala, eta beste batzuetan ekarpen positiboak baina txikiak egin dizkio, aurreko hiruhilekoetan bezala.

Beraz, hazkundearen ardura barne eskariaren bizitasunari egokitu zitzaion berriro, urte arteko tasan %3,3 hazi baitzen. Tasa hori 2007ko amaieratik inoiz eskuratu den baliorik gorena da. Bizitasun hori agregatuaren bi osagaiek partekatzen dute eta bai azken kontsumoak bai kapital eraketa gordinak aurreko emaitzak hobetu zituzten bigarren hiruhilekoan. Adierazi behar da kontsumo pribatuak (%3,4) ez duela makaltzeko zantzurik erakusten. Aitzitik, gai izan zen lehen hiruhilekoko gehikuntza berez oso garrantzitsua hamarren batean gainditzeko. Enpleguaren sorrera, inflaziorik eza eta konfiantzaren berreskurapena gastu erabakiak hartzeko arrazoietako batzuk dira.

Kapital eraketa gordinak %3,7ra igo zuen bere urte arteko aldakuntza tasa, aurreko emaitza hiru hamarrenetan gaindituz. Osagai horren ezaugarri azpimarragarriena gainontzeko kapital eraketa gordina delakoaren bultzada da, hainbat hiruhilekoz geldotasuna erakutsi ondoren, %2,2 hazi zelako. Hori horrela izan arren, ekipamendurako ondasunak izan ziren berriro inbertsioaren atalik dinamikoena, %7,0ko gehikuntza batekin, nahiz eta zenbaki hori aurreko bi hiruhilekoetan lortutakoa baino txikiagoa den. Kreditu bat interes tasa baxuan lortzeko erraztasun gero eta handiagoak, Europako Banku Zentralaren politika hedakorrari esker, ekoizteko ahalmenaren erabilera altuak, EAerako aurreikusten den hazkunde biziak eta inguruneko herrialdeetarako espero den gehikuntza neurritsuak instalazio berriak martxan jartzea eta zaharkituak berritzea errazten dute.

Sektoreen ikuspegitik, eraikuntzaren susperraldia azpimarratu behar da, hainbat urtez beherakadak eta 2015ean hazkunde positiboa baina oso txikia jaso ondoren. Hain zuzen ere, eraikuntzaren urte arteko gehikuntza %2,7 izan zen bigarren hiruhilekoan. Zenbaki horrek baztertzen du aurreko bi hiruhilekoetan jaso ziren jaitsieren ondorioz agertu zen beherakada mehatxua. Txanponaren ifrentzua industriak eskaini zuen, lau hiruhilekoz jarraian %4tik gora hazi eta gero, epealdi horretan %2,4ra apaldu zuelako erritmoa. Industriaren motelaldi hori aurreko hiruhilekoan gauzatu zen Europako herrialdeen artean, zeren eta 2015eko bigarren erdian %3tik gorako tasak jaso ondoren, 2016ko lehen eta bigarren hiruhilekoetan balio erantsia %1,5 bakarrik handitu zutelako.

Tonu onuragarriago batean, zerbitzuek beren sasoi ona baieztatu zuten eta %3,4 hazi ziren, aurreko datua baino ia puntu erdi bat gehiago. Jarduera horiek sailkatzeko erabiltzen diren hiru taldeek lehen hiruhilekokoak baino aldakuntza tasa handiagoak eskuratu zituzten. Beraien artean, merkataritza, ostalaritza eta garraioaren susperraldia (%3,9) nabarmendu behar da, nahiz eta gainontzeko zerbitzuak izenekoak ere emaitza sendoa lortu zuen (%3,6). Azkenik, administrazio publikoari lotuago dauden jarduerak erritmo egonkorrari eutsi zioten (%2,4).

Enpleguak BPGaren antzeko bilakaera izan zuen eta urte arteko aldakuntza tasa hamarren bat gutxitu zuen ere, kasu horretan %1,8ra arte. Horri esker, azken hamabi hilekoetan sortu diren lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua 16.000 lagunengaineko da eta EAEko ekonomiak guztira dituen enpleguak dagoeneko 900.000etatik hurbil dago.

Prezioei dagokionez, BPGaren deflatoreak oso balio apala jaso zuen berriro, %0,2 baino ez, aurreko epealdien antzera. Kontsumoko prezioek, berriz, atzean utzi dituzte otsailetik izan zituzten beherakada biziak eta irailean balio positiboak (%0,3) finkatu zituzten, petrolioak nazioarteko merkatuetan garestitzen ari zen heinean. Aurreikusten denez, petrolioak datozen hilekoetan utziko dio KPIa beherantz bultzatzeari eta, aitzitik, salneurrien igoera nabaria eragin dezake.


Berriki ezagutarazi den informazio ekonomikoa kontuan hartuta, Ogasun eta Finantza Sailak aurreikuspenak gaurkotu ditu. Oraingoek udaberriaren argitaratu zirenek baino bilakaera onuragarriagoa erakusten dute. Hain zuzen ere, aurten EAEko barne produktu gordina %2,9 haziko dela aurreikusten da eta datorren urtean hazkundea %2,2ra iritsiko da, petrolio merkearen eta moneta politikaren aparteko eragina bertan behera geratuko delako, oraindik moneta politika hedakorra izango bada ere. Deflatorea, berriz, %1,2 haziko da. Enpleguari dagokionez, 2016an %1,8 haziko dela eta 2017an, berriz, %1,6 gehituko dela aurreikusten da.

## EKONOMIAREN INGURUNEA


2016ko bigarren hiruhilekoan, munduko BPGa erritmo neurritsuan baina iraunkorrean hazi zen berriro. Izan ere, lehen kalkuluen arabera, munduko ekonomia jarduera %3,1aren inguru areagotu zen, aurreko hiruhilekoan jasotako tasa baino hamarren bat gehiago. Petrolioaren salneurriak bizi zuen igoerak on egin zion nazioarteko merkataritzari eta hazkunde tasa positiboak berreskuratu zituen, aurreko hilekoetan pairatu zuen geldotasun garrantzitsuen ondoren. Munduko inflazioa, berriz, gutxi igo zen.

### Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko hazkunde tasak


AEB




Europar Batasuna



Txina



India



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Ekonomia aurreratuek hedatzeko ibilbideari eutsi zioten, motelago izan bazen ere. Zehazkiago adierazita, ELGE erakundeko herrialdeak %1,6 hazi ziren aurtengo bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan lortutako emaitza baino hamarren bat gutxiago. Erresuma Batua Europar Batasunetik irteteko erreferendumaren emaitzak ziurgabetasuna sortu duen arren, oraingoz ez bata ez beteak ez dute kalte handirik pairatu erabakiarengatik. Izan ere, Europar Batasuneko BPGa aurreko hilekoetan jasotako mailaren apur bat bakarrik beherago kokatu zen eta Erresuma Batuak azken hamabi hilekoetako gorakadarik handiena eskuratu zuen. Garapen bidean dauden ekonomiek, berriz, bilakaera kontrajarriak izan zituzten. Alde batetik, azaleratzen ari diren Asiako ekonomiek hazkunde egonkorra erakutsi zuten, batez ere Txinak bultzatua, eskari politiken irizpide hedakorraz baliatu zelako eta bere hazkundera egonkortu zuelako. Beste aldetik, Amerika Latinoko herrialdeen artean, Brasilek bere atzeraldia sakona leundu zuen eta lehen hiruhilekoko %-5,4 hartatik bigarreneko %-3,8ra igaro zen. Aitzitik, Argentinan argitaratu diren estatistika serie berriek herrialde horrek bizi duen egoera zaila erakutsi dute (%-3,0).

Zehazkiago, Txina %6,7 hazi zen aurtengo bigarren hiruhilekoan, hots, aurreikusitako zena baino gehiago, eta 2016ko lehen hiru hilekoetan eskuratutako emaitza berdinduz. Urte hasieran onartu ziren pizgarri neurri ugariak inbertsio publikoa gorarazi zuten eta barne eskaria finkatu. Neurri horien artean daude banku zentralak likidezia ematea, zergak jaitea eta gastu fiskala nabarmen handitzea. Izan ere, zerbitzuek BPGaren %54,1 bereganatzen dute dagoeneko eta barne kontsumoak hazkunderaren ia hiru laurdeneko ekarpena egiten du. Aurrekoari gehitu behar zaio pilotutako inflazioa %2,1ean egon dela aurtengo lehen sei hilekoetan (abuztuan, urte arteko tasa %1,7an kokatu zen eta irailean %2,3ra goratu zen) eta kanpo merkataritzak bigarren hiruhilekoan lehengoan izan zuen jaitsiera apaldu zuela.

Estatu Batuetan, inflazio apalak eta lan merkatuaren egoera onak kontsumo pribatua %2,7ra igoarazi zuten. Hala eta guztiz ere, egituretan eta ekipamenduan eginiko inbertsio pribatuaren jaitsierak eta inbertsio publikoaren hazkunde erritmo txikiagoak, neurri handi batean energia alorrean eginiko kapitaleko gastua murriztu zelako, ekonomiaren jarduera %1,3ra mugatu zuten, azken hiru urteko emaitza txikiena delarik. Datu ona lan merkatuaren eskutik iritsi zen, bertako langabezia tasa %4,9an dagoelako ekainetik, krisia hasi baino lehen zegoen tasa berdinduz, baina orain 6,5 milioi landun gehiagorekin.

Japoniako ekonomiak jakin zuen apirileko lurrikara gaintitzen eta, aurreikuspen guztien aurka, ez zuen ekoizpena gutxitu. Aitzitik, bertako BPGa %0,8 hazi zen. Kontsumo pribatuak hazkunde positiboak berreskuratu zituen, errenta erreala hazten ari zen eta BEZaren igoera geroratu zen une batean. Aldi berean, finantzatzeko baldintza onak inbertsioaren hazkundera erraztu zuten. Esportazioek ere kanpo eskariaren hobekuntzaz baliatzen jakin zuten eta aldakuntza tasa positiboak eskuratu zituzten. Lan merkatuaren bilakaera aringarria izan zen gobernuaren

politikentzat, uztailean eta abuztuan inflazio tasa %0,5era jaitsi ondoren. Zehazkiago seinalatuta, Japoniako langabezia tasa %3,0an kokatu zen pasa den uztailean, ekainean lortutakoa baino hamarren bat beherago eta 21 urtean izandako maila txikiena. Abuztuan, ordea, zertxobait igo zen, %3,1era arte.

Europar Batasunak, berriz, zertxobait gutxitu zuen bere hazkundera eta bigarren hiruhilekoz jarraian gehikuntza tasa galgatu zuen. Hala eta guztiz ere, beraren BPGa %1,8 areagotu zen, AEBetako eta Japoniako emaitzen gainetik. Hazkunde horren oinarrian kontsumo pribatuaren gorakada dago, moneta politikaren izaera hedakorrak, petrolioaren salneurria, berriki igo den arren, oraindik oso maila txikietan jarraitzeak, lan merkatuaren hobekuntzek eta politika fiskalaren tonu neutroagoak lagunduta. Orobat, barne eskariaren gainontzeko agregatuek ere ekarpen positiboak egin zizkieten ekonomia jarduerari. Aitzitik, kanpo arloak bi hamarren kendu zizkion barne produktu gordinari. Herrialdeka eginiko analisian, kontsumoaren eta inbertsioaren erritmo apalagoak azaltzen du Alemaniako jarduera ekonomikoaren apalaldia. Aitzitik, Frantzia inbertsioaren sendotasunak eta kontsumo publikoaren eta pribatuaren egonkortasunak hazkundera finkatu zuten, nahiz eta esportazioak bere horretan geratu. Azkenik, Erresuma Batuak ihes egin zien brexitaren ondorioz sortu ziren zurrunbiloei. Herrialde hartako kontsumo pribatuak krisiaren aurretik izan duen tasarik gorena lortu zuen eta inbertsioak galdutako bizitasunaren zati bat berreskuratu zuen. Horien ondorioz, BPG britainiarra %2,2 hazi zen.

Lan merkatuari dagokionez, Europar Batasuneko langabezia tasa ez zen aldatu abuztuan eta laugarren hilekoz jarraian %8,6an kokatu zen, 2009ko martxotik izan duen mailarik apalena baita. Euroguneko joera antzekoa izan zen eta abuztuko langabezia tasa %10,1 izan zen, bosgarren hilekoz segituan. Tasa hori urtebete bat lehenago zegoena baino sei hamarren beherago dago eta 2011ko uztailetik jaso den txikiena da. Hala ere, bi tasa horiek pasa den hamarraldiko batez bestekoaren gainean daude. Kalkuluen arabera, 20.973.000 lagun zeuden lanik gabe abuztuan Europar Batasunean eta haietatik 16.326.000 Euroguneko herrialdeetako biztanleak ziren. Eskura dauden herrialde kideen artean, langabezia tasa txikienak Txekiar Errepublikan (%3,9), Alemanian (%4,2) eta Maltan (%4,8) zeuden. Beste muturrean, tasarik gorenak Grezian (%23,4 ekainean) eta Espainian (%19,5) jaso ziren. Azkenik, inflazioa %0,4ra igo zen irailean Eurogunean, abuztuko %0,2tik bi hamarren gorago. Tasa hori oraindik oso txikia den arren, azken bi urteko altuena da.

Ekonomiaren ziurgabetasunak ez zion ordainik ekarri espainiar ekonomiari eta jarduneko gobernuak izan arren eta jarduera bultzatzeko neurri garrantzitsuak onartzeko moduan egon ez arren, BPGa %3,2 areagotu zuen. Kontsumo pribatuak erakutsi zuen sendotasunak eta inbertsioaren bizitasunak, aurreko hiruhilekoetako erritmoa zertxobait galgatu arren, barne eskaria bultzatu zuten. Halaber, kanpo eskariak ekarpen positiboa egin zion hazkunderari.

Eskaintzaren ikuspegitik, zerbitzuek aurreko hiruhilekoko hazkundeari eutsi zioten, baina gainontzeko jarduera adarren tasak zertxobait txikiagoak izan ziren.

Analisia lan merkatuan fokatzen bada, hiruhilekoka argitaratzen den kontabilitatearen datuek adierazten dute enplegua %2,9 hazi zela, aurreko epealdian baino hiru hamarren gutxiago. Datu horrek esan nahi du azken urtebetean lanaldi osoko 484.000 lanpostu baliokide sortu zirela. Maila agregatuan, joera orokorra enplegua sortzeko erritmoa apaltzearena izan zen eta eraikuntzak bakarrik lortu zuen aurrekoa baino hazkunde tasa handiagoa. Langabezia tasa, berriz, %19,5era beheratu zen abuztuan. Izan ere, Europako Banku Zentralak azpimarratu duenez, Espainia eta Alemania dira 2013ko minimoetatik enplegua sortzen gehien lagundu duten herrialdeak, beraiek guztizkoaren %25 ekarri dutelako. Dena dela, langabezia tasa oraindik oso altua da eta Greziak bakarrik gainditzen du. Azkenik, inflazioak balio positiboak berreskuratu zituen irailean (%0,3) hamahiru hilekoz tasa negatibotan edo hutsaletan murgilduta egon eta gero, %-1,1era iritsi zirenak. Erregaien eta argindarraren garestitzeak azaltzen du iguera hau.

## ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2014	2015	2015				2016	
			I	II	III	IV	I	II
Azken kontsumoko gastua	0,9	3,0	2,3	2,8	3,4	3,5	3,4	2,7
- Familien gastua	1,2	3,1	2,6	2,9	3,6	3,5	3,7	3,6
- Administrazioaren gastua	0,0	2,7	1,5	2,5	3,0	3,7	2,4	0,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,5	6,4	6,1	6,3	6,7	6,4	5,1	4,0
- Aktibo finko materialak	3,7	7,2	7,0	7,1	7,6	7,1	5,5	4,4
- Eraikuntzan	-0,2	5,3	6,2	5,2	5,2	4,6	3,1	2,1
- Ekipamendurako ondasunetan	10,5	10,2	8,3	10,1	11,2	10,9	9,3	7,8
- Jabetza intelektualeko produkt.	2,1	1,8	1,0	1,9	1,7	2,8	2,4	1,6
Nazio eskaria (*)	1,6	3,7	3,1	3,4	4,1	4,1	3,8	3,0
Esportazioak	5,1	5,4	5,8	6,0	4,5	5,3	3,8	6,8
Inportazioak	6,4	7,5	7,6	7,4	7,2	7,7	5,4	6,6
<b>BPG (m.p.)</b>	<b>1,4</b>	<b>3,2</b>	<b>2,7</b>	<b>3,2</b>	<b>3,4</b>	<b>3,5</b>	<b>3,4</b>	<b>3,2</b>
Nekazaritza eta arrantza	-3,7	1,9	-4,0	2,0	3,7	6,2	5,5	3,5
Industria	1,2	3,4	3,0	3,6	3,8	3,4	2,7	2,6
Eraikuntza	-2,1	5,2	5,9	5,8	5,1	4,0	2,8	2,2
Zerbitzuak	1,9	3,1	2,7	3,0	3,3	3,4	3,6	3,6
Produktuen gaineko zerga garbiak	0,8	2,8	2,3	2,6	2,7	3,6	3,0	2,2
<b>GOGORATZEKOAK</b>								
- Kontsumoko prezioen indizea	-0,2	-0,5	-1,0	-0,3	-0,4	-0,3	-0,7	-0,9
- Enplegua (**)	1,1	3,0	2,9	2,9	3,1	3,0	3,2	2,9

Oinarri urtea: 2010. (\*) BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena. (\*\*) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak. Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).



## EAE-KO EKONOMIA

### Ekoizpena eta enplegua

EAEko ekonomiak %3,2 areagotu zuen bere BPGa 2016ko bigarren hiruhilekoan, hots, aurreko hiru hilekoetan lortutako emaitza baino hamarren bakar bat gutxiago. Horren ondorioz, egonkortasuneko irudia eskaini du, europar herrialdeena bezalakoa, baina azken horien mailatik nabarmen gorago. Zehazkiago adierazita, EAEko ekonomiak izan zuen bizitasunaren aldean, Europar Batasuneko multzoak %1,8ko gehikuntza eskuratu zuen urte arteko tasan, hori ere aurreko emaitza baino hamarren bat txikiago delarik. Euroguneak, berriz, lehen hiruhilekoko %1,7tik bigarreneko %1,6ra igaro zen. Halaber, Espainiarekin (%3,2) zegoen hazkunde diferentzia desagertu da, herrialde horrek bi hamarrenetan gutxitu zuelako urte hasieran lortu zuen erritmoa. Azkenik, EAEko ekonomiaren analisia hiruhileko arteko tasatan eginez, gehikuntza %0,8 izan zen, lehen hiruhilekoko beste, aurtengo bigarren erdirako hazkunde altua bermatuz.

#### ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2015			2016	
			II	III	IV	I	II
<b>BPG erreala</b>	1,6	2,9	2,9	3,1	3,1	3,3	3,2
Nekazaritza eta arrantza	-19,8	13,4	5,8	13,1	24,3	11,6	2,8
Industria eta energia	2,0	3,9	4,4	4,5	4,9	4,8	2,4
- Manufakturen industria	2,4	4,7	5,3	5,4	5,7	4,7	2,6
Eraikuntza	-1,7	0,5	0,6	0,2	-0,2	-0,3	2,7
Zerbitzuak	1,7	2,9	2,8	3,1	2,8	3,0	3,4
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	1,9	4,5	4,7	4,9	3,8	3,1	3,9
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	2,6	2,5	2,6	2,4	2,2	2,2	2,4
- Gainontzeko zerbitzuak	1,0	2,0	1,8	2,3	2,4	3,4	3,6
Balio erantsi gordina	1,4	3,1	3,1	3,3	3,2	3,3	3,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	3,8	1,1	0,8	1,2	2,0	3,2	3,2

Iturria: Eustat.

Lau hiruhilekoz jarraian %3,0tik gorako zifrak lortu izanak erakusten duen egonkortasuneko irudi horren barruan, bigarren hiruhilekoan azpimarratu behar den ezaugarria eraikuntzaren susperraldi bizia da. Izan ere, denbora luzez etengabeko beherakadak jaso ondoren eta oraindik

hainbat datu negatibo izan zituen susperraldi herabe baten ostean, 2016ko bigarren hiruhilekoan sektore horrek %2,7 areagotu zuen bere balio erantsia. Halakorik ez zen 2007tik inoiz gertatu. Data hartatik gaur arte, eraikuntzak bere jardueraren herena baino zertxobait gehiago galdu du eta, hori dela eta, oso zaila egingo zaio krisi aurreko mailara itzultzea. Osagaiak aztertuta, susperraldia eraikinen atalera mugatzen da, %6,2 hazi zelako, Eustatek egiten duen eraikuntzaren koiuntura inkestaren arabera. Aitzitik, obra zibilak beherakada garrantzitsuak (%-11,2) jaso zituen berriro.

## JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2015		2016		
			IV	II	Uztaila	Abuztua	Iraila
<b>Industria</b>							
Industria produkzioaren indizea	1,4	3,7	5,2	-0,7	-2,0	2,5	---
Industria giroaren indizea	-12,6	-3,9	0,2	-2,4	-11,0	-6,7	-10,7
Ekoiizteko ahalmen. erabilera (%)	76,1	79,7	79,3	81,9	---	82,6	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-2,2	-0,3	1,3	1,6	2,0	2,1	2,1
<b>Eraikuntza</b>							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	-4,6	-0,1	-1,7	3,5	---	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak (etxeak)	2,0	45,5	67,2	-16,2	-29,1	---	---
Etxebizitzaren salerosketak	8,8	17,2	24,9	20,5	-13,8	13,6	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-3,2	-0,5	-0,3	-0,1	-0,7	-0,2	0,1
<b>Zerbitzuak</b>							
Hegazkinen bidezko trafikoa	5,3	6,5	12,4	7,5	6,4	3,0	4,8
Hoteletan igarotako gaualdiak	4,0	8,2	20,3	7,1	8,3	4,3	8,6
Hoteletako okupazioa	46,4	49,8	37,7	53,4	70,2	79,0	64,6
Negoio zifren indizea	4,2	4,3	4,1	6,2	0,4	---	---
Zerbitzuen koiuntura indizea	1,3	2,5	3,3	5,2	---	---	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,4	2,8	2,6	2,3	2,1	1,9	1,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Energia eta Turismo Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantza eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Beste aldetik, industriak nabarmen apaldu zuen bere hazkunde erritmoa, urte hasieran lortutako %4,8 hartatik bigarren hiruhilekoko %2,4ra. Hala eta guztiz ere, tasa hori oraindik Europako herrialdeetan, batez beste, epealdi berean eskuratutakoa (%1,6) baino handiagoa da. Industriaren galgatze hori iragarrita zegoen industria ekoizpenak udaberrian eta udako lehen hilekoetan izan zituen jaitsiera txikietan, neurri batean altzairua eta energia sortzeko arazo batzuei lotuta, baina arazo horiek konpontzeko bidean daude.

Sektorearen barnean, bilakaera biziena ekipamendurako ondasunek lortu zuten berriro, bigarren hiruhilekoan %5,8 hazi zirelako eta uztailean (%3,4) zein, batez ere, abuztuan (%17,9) emaitza onak jaso zituztelako. Zenbaki horiek aurreko hiruhilekoetan jasotako antzekoak dira eta jarduera horren bizitasuna begi bistan uzten dute. Industria alorreko enpresen ekoizteko ahalmenaren erabilera altuak laguntzen du eskaera berriak egitura handitzeko inbertsio bihurtzea eta hori ondasun mota horien mesederako da. Beste muturrean kokatzen da energiaren ekoizpena, apiriletik abuztura bitartean oso beherakada esanguratsua izan zuelako. Hala ere, gogoratu behar da osagai horrek gorabehera handiak izaten dituela eta horrek beraren joera hautematea zaila egiten duela. Tarteko egoera batean, baina horiek ere emaitza negatiborekin, bitarteko eta kontsumoko ondasunak zeuden. Lehenengo kasuan, maiatzeko, ekaineko eta uztaileko datuak negatibo samarrak izan ziren eta %2,0 baino zertxobait gutxiago murriztu zuten ekoizpena, baina abuztuan %3,4 suspertu zuen jarduera. Kontsumoko ondasunen artean, portaera etsipengarriena ondasun iraunkorretan nabaritu zen, ekoizpenaren %10 baino gehiago galdu zutelako hiruhilekoan. Aitzitik, kontsumo iragankorreko ondasunek emaitza negatibo txikiak eta datu positiboak tartekatu zituzten hileko horietan.

Industria jardueraren moteltzea, balio erantsi txikiago batean eta ekoizpen murriztuago batean islatuta baitago, alorreko enpresen erantzunetan ere hauteman da, azken hilekoetan industria giroaren indizeak erakutsi duenez. Adierazle hori ez da gai izan eremu positiboan jarraitzeko eta bigarren hiruhilekoan -2,4an kokatu zen, uztaileko, abuztuko eta iraileko emaitzak (-9,5) are okerragoak izan zirela. Beraz, baikortasuna zertxobait hoztu da sektorean. Iritzi ezkorrago horiek agian lotuta daude Espainian gobernurik ez egoteak eragin duen ziurgabetasunari eta Europar Batasunetik irteteko Erresuma Batuan egin zen erreferendumaren (Brexit) emaitzari. Eskari zorroaren egoeraz eman zituzten erantzunak nabarmen hobetu ziren bigarren hiruhilekoan, baina hirugarren hiruhilekoko datuak atzera pausu handia izan dira atal horretan. Orobat, merkatuan tokirik aurkitu ez duten amaitutako produktuen stocka handiagoa dela aitortu dute, eta ekoizpenari buruzko iritziek okerrera egin dute.


Zerbitzuek sendotasun handia erakutsi zuten berriro bigarren hiruhilekoan eta balio erantsia %3,4 areagotu zuten, hots, 2008ko erdialdetik izandako gorakadarik biziena. Hazkundearen bizkortze hori sektorearen hiru ataletan gauzatu da, baina bereziki esanguratsua da merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituenen, zeren eta lehen hiruhilekoan jasotako %3,1etik bigarreneko %3,9ra igaro baita. Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak biltzen dituenak bi hamarretan hobetu zuen arren emaitza eta %2,4ra igoarazi zuen. Azkenik, gainontzeko zerbitzuek gehikuntza tasa bizkortu zuten bosgarren hiruhilekoz jarraian eta %3,6ko urte artekoa eskuratu zuten, hori ere azken zortzi urteko tasarik gorena delarik.

Zerbitzuen sendotasuna sektorea bere osotasunean aztertzen duten adierazle nagusietan ere baieztatzen da. Izan ere, Eustatek argitaratzen duen zerbitzuen koituntura indizeak %5,2ko gehikuntza jaso zuen bigarren hiruhilekoan, aurreko balioak nabarmen gaindituz. Hala merkataritzak (%6,6) nola gainontzeko zerbitzuek (%3,1) hazkunde tasa biziak erakutsi zituzten. Lehen taldean, automobilen salmenta eta konponketa (%10,1) gailendu zen eta bigarren taldean oso esanguratsua da jarduera administratiboak eta zerbitzu laguntzaileak (%13,1) taldearen bilakaera. Orobat, INEK kalkulatzeko duen negozio zifra %6,2 hazi zen bigarren hiruhilekoan, aurreko datuen oso gainetik. Azkenik, turismoari buruzko adierazleek portaera ona izan zuten, hala gualdietan nola bidaiarien trafikoan.


Lan merkatuak erantzuna eman zion BPGaren gehikuntzari eta antzeko bi hiruhilekoetako enplegu sorrera lortu zuen, urte arteko tasa %1,8an utzita. Tasa horrek esan nahi du lanaldi osoko 16.000 lanpostu baliokide baino gehiago sortu zirela 2015eko bigarren hiruhilekotik 2016ko bigarrenera bitartean.

### Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzak

Enpleguari dagokionez, bigarren hiruhilekoko daturik esanguratsuenak industria enpleguaren finkatzea izan zen, urte hasierako emaitza bi hamarrenetan hobetu zuelako eta urte arteko tasa %1,4an kokatu zuelako, bederatzi urtean izandako hazkunderik handiena baita. Beraz, duela urtebete bat zeudenak baino lanaldi osoko 2.600 lanpostu inguru gehiago daude gaur egun

industrian. Hala ere, azken urtebetean sortu diren lanpostu gehienak zerbitzuetako jardueretan daude, %2,1eko gehikuntza lortuta. Tasa hori aurreko bi hiruhilekoetakoa baino txikiagoa da eta 13.500 lanpostu berri daudela adierazten du. Eraikuntzak, ordea, bere lanpostuen kopurua berriro gutxitu zuen (%-0,1), baina egonkortzeko unetik oso hurbil dago jadanik. Azkenik, lehen arloak (%1,0) ekarpen txiki bat egin zion enpleguaren hazkunderari 100 lanpostu berri baino zertxobait gehiago sortuta.

Gizarte Segurantzako afiliazioak enpleguaren gehikuntzaz eskaintzen duen bilakaera eta Eustateko kontu ekonomikoena oso antzekoak dira. Zehazkiago adierazita, bigarren hiruhilekoan afiliazioaren gehikuntza tasa %2,0 izan zen, aurreko hiruhilekoan lortutakoa baino hamarren bat gutxiago. Moteltzeko joera arin horrek jarraipena izan zuen udako hilekoetan ere zeren eta uztailean %1,9, abuztuan %1,8 eta irailean %1,5 hazi baitzen. Jarduera adarren arabera, urte arteko gehikuntza handienak jarduera artistikoetan (%4,8), informazioa eta komunikazioetan (%4,5) eta ostalaritzan (%3,7) lortu ziren. Beste muturrean, afiliatuak galdu zituzten jarduera gutxi horien artean, higiezinak (%-7,7) eta finantza eta aseguruak (%-3,2) azpimarratu behar dira.

Ekoizpenak eta enpleguak erakutsi zuten portaera paraleloak lagundu zuen produktibitatearen irabaziak bigarren hiruhilekoan aurreko epealdietan lortutakoak bezalakoak izaten. Hain zuzen ere, aldagai horren hazkundera %1,3ra iritsi zen, azken bost urtean lortutakoaren ildotik. Azpimarratzekoa da industriaren produktibitateak (%1,0) jaso zuen emaitza apala, eraginkortasuna gehien handitzen duen sektorea izaten delako. Aitzitik, normalean tasa apalak eskuratzen dituzten arloek, hots, eraikuntzak eta zerbitzuek, nahiko irabazi altuak izan zituzten, hurrenez hurren %2,9 eta %1,3.

## Barne eta kanpo eskaria

EAEko barne produktu gordinak izan duen hazkunderaren bizitasuna barne eskariaren eskutik etorri zen, bigarren hiruhilekoan hazkunde erritmoa %3,3ra areagotu zuelako, hori ere 2007tik inoiz eskuratu den gehikuntza tasarik gorena baita. EAEko eta Europako barne eskarien artean horrelako diferentzial zabala egoteak kanpo eskariaren ekarpen negatibo txikia, hiru hamarrenen ingurukoa, ekarri du berarekin.

EAEko ekonomiaren hazkunde ereduak aurreko txostenean aipatu ziren ezaugarrietan sakondu du, kapital eraketa gordinaren protagonismoa gero eta handiagoa delako, baina azken kontsumoaren sendotasuna ere garrantzitsua izanda. Izan ere, barne eskariaren bi osagai

nagusiek %3,0tik gorako urte arteko aldakuntza tasak jaso zituzten berriro eta urte hasierako emaitzak gainditu zituzten. Hala ere, inbertsioaren gehikuntza kontsumoarena baino handiagoa izan zen. Zehatz-mehatz adierazita, kapital eraketa gordinak %3,7ko emaitza eskuratu zuen, aurreko epealdian baino hiru hamarren gehiago, azken kontsumoa %3,2 hazi zen bitartean, urte hasierako datuaren aldean hamarren bat gehiago delarik. Inbertsioak lortu duen protagonismoa hazkundearen jarraipenerako bermea da.

## ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2015			2016	
			II	III	IV	I	II
<b>BPG erreala</b>	<b>1,6</b>	<b>2,9</b>	<b>2,9</b>	<b>3,1</b>	<b>3,1</b>	<b>3,3</b>	<b>3,2</b>
Gastua azken kontsumoan	1,9	2,8	2,9	3,2	2,7	3,1	3,2
- Familien gastua kontsumoan	2,2	3,1	3,3	3,1	2,9	3,3	3,4
- Adminis. gastua kontsumoan	0,7	1,8	1,3	3,4	2,0	2,4	2,7
Kapital eraketa gordina	-0,5	2,8	2,7	2,8	2,8	3,4	3,7
- Ekipamendu ondasunak	3,3	6,5	5,8	7,4	8,8	10,7	7,0
- Gainontzeko inbertsioa	-2,0	1,2	1,3	0,7	0,3	0,2	2,2
Barne eskaria	1,4	2,8	2,8	3,1	2,7	3,1	3,3
Esportazioak	5,8	0,6	1,5	-2,9	2,3	4,2	3,0
Inportazioak	5,3	0,6	1,3	-2,8	1,6	3,9	3,2

Iturria: Eustat.

Azken kontsumoaren barnean, aldeko bilakaerak hauteman dira hala kontsumo pribatua nola kontsumo publikoan, bi kasuetan aurrekoak baino gehikuntza tasa handiagoak lortu zirelako. Familien kontsumoari dagokionez, %3,4ko gorakada jaso zen. Beraz, BPGa baino zertxobait gehiago hazi zen. Ekonomia zikloaren oraingoa bezalako fase aurreratu batean, ez da gomendagarria familien gastua sortutako aberastasuna baino gehiago haztea, zorpetzea areagotu dezakeelako. Hala ere, emaitza hori une jakin batean gertatu da eta ez dago arrazoirik pentsatzeko hemendik aurrera ere gertatuko denik, kontsumoaren motor batzuek bizitasuna galgatzeko zantzuak eman dituztelako. Alde batetik, inflazioa positiboa da berriro eta petrolioia garestitu da. Beste aldetik, ziurgabetasuna handitu da Espainian gobernurik ez dagoelako eta Brexitaren ondorioak ezagutzen ez direlako. Administrazio publikoen kontsumoari dagokionez, bigarren hiruhilekoan hazkundera %2,7ra iritsi zen, urte hasierako datua baino hiru hamarren gorago. Dena dela, aldagai horrek gorabehera handiak izaten ditu hiruhileko batetik bestera, ordainketen egutegiaren arabera.

Lehenago ere adierazi denez, kapital eraketa gordinak oso bilakaera ona izan zuen 2016ko bigarren hiruhilekoan (%3,7). Aurreko hiruhilekoetan ez bezala, epealdi horretan inbertsioaren bi osagaiak irudi hedakorra eskaini zuten, baina oraindik askoz ere intentsuagoa da ekipamendurako ondasunen osagaiak erakutsi zuena. Zehazkiago kontatuta, ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioak %7,0ko gorakada lortu zuen. Datu hori oso esanguratsua da oraindik, baina aurreko emaitza baino ia lau puntu beherago dago. Interes tasa apalek, kreditua lortzeko orduan orain dauden erraztasunek, ekoizteko ahalmenaren erabilera altuak eta eskari handiak ekipamendurako ondasunen erosketa lagundu dute. Beste aldetik, gainontzeko inbertsioa, eraikuntzan eginikoa barnean hartzen baitu, %2,2 areagotu zen aurreko urteko epealdi beraren aldean eta aurreko epealdietako hazkunde hutsalak (%0,2 lehen hiruhilekoan) atzean utzi dituela ematen du.

Inbertsioak, bereziki ekipamendurako ondasunetan eginikoak, bizi duen une gozoa baieztatuta geratu da eskura dauden koiunturako datuekin. Beraien artean, ondasun horien ekoizpenaren bilakaera, Eustatek argitaratua, nabarmendu behar da, bigarren hiruhilekoan %5,8, uztailan %3,4 eta abuztuan %17,9 hazi zelako. Aldagai horrek urtebete bat eta erdi darama etengabe hazten eta hilabete askotan %10,0tik gorako tasak lortu ditu. Beste aldetik, ekipamendurako ondasunen inportazioak %14,2 areagotu zen bigarren hiruhilekoan eta dagoeneko zazpi hiruhilekoz jarraian hazi da %11,0 baino gehiago.

EAEko barne eskariaren sendotasunarekin batera kanpo saldoaren ekarpen negatibo txiki bat iritsi zen, hiru hamarrenen ingurukoa. Emaitza hori aldentzen da 2016ko lehen hiruhilekoko posizio neutrotik eta 2015eko laugarren hiruhilekoan izandako lau hamarreneko ekarpen positibotik. Halere, ezin da baieztatu lehiakortasuna galtzen ari denik kanpoarekiko, ekarpen horiek, zentzu batean edo bestean, txikiak direlako. Bigarren hiruhilekoan, hala esportazioek nola inportazioek hamarren batzuk leundu zuten hazkunde erritmoa, bereziki lehenengoek, baina gehikuntza tasak oraindik antzekoak dira. Esate baterako, kanpoan eginiko salmentak %3,0 hazi ziren eta erosketak, berriz, %3,2, biak termino errealetan neurtuta. Unean uneko prezioetan, biak %1,6 handitu ziren. Hortik ondorioztatzen da atzerriarekiko salerosketen prezioek behera egin zutela. Esportazioen kasuan, merkatze orokorra bizi zen, baina inportazioen kasuan jaitsiera energia alorreko produktuetan gauzatu zen, kontsumorako ondasunak ordurako garestitu ziren bitartean.

Atzerrira bidalitako ondasunen analisiak seinalatzen du salmenten balioa berriro igo dela, kasu horretan %0,3. Gehikuntza tasa hori oso txikia den arren, adierazi behar da esportatutakoaren zenbatekoa serie historiko osoaren altuenetako bat izan zela eta are meritu handiagoa duela esportazioen salneurria jaisten ari zen une batean lortu zelako. Izan ere, hiruhileko horretan unitateko balio indizea (UBI) %-4,3 izan zen.

Esportazioen salneurriak merkatu izanaren arrazoi nagusia, beste hiruhileko batez, petrolioaren prezioak nazioarteko merkatuetan izan duen bilakaeran datza. Lehengai horrek %27,5 beheratu zuen prezioa 2016ko bigarren hiruhilekoan aurreko urtean zuen prezioarekin alderatuta, garai hartan upelak balio zuen 55 euroetatik aurten kostatzen duen 40 euroetara igarota. Hala eta guztiz ere, hirugarren hiruhilekoan dagoeneko argitaratu diren datuek adierazten dute petrolioaren beheranzko joera hori irauli dela eta garestitzeko prozesu leun bati ekin diola, neurri handiagoan urte amaieran nabaritutako dena. Hain zuzen ere, Brent motako upelaren balioa irailean 41,7 eurora (46,8 dolarrera) iritsi zen.

Atzerrian eginiko salmenten analisia energiaren bestelako produktuetara mugatzen bada, emaitza hobea lortzen da. Izan ere, energiaren bestelako esportazioak %6,4 hazi ziren, aurreko balioak baino askoz ere gehiago. Beraien artean, garraio materialaren hazkundea nabarmendu behar da, salmenten balioa %33,8 areagotu zelako. Orobat, paperaren salmentak ere oso emaitza ona (%17,3) eskuratu zuen. Emaitza bikain horietatik guztiz aldentuta, erregai mineralak zeuden (%-40,2), alde batetik prezioa jaitsi zelako, lehenago ere adierazienez, eta beste aldetik saldutako kantitatea ere murriztu zelako (%-14,2). Metal arrunten eta beren manufakturen jaitsiera ere garrantzitsua izan zen (%-13,0) eta bost hiruhilekoz jarraian behera egin du, alor horretako enpresa batzuk itxi direlako.

Esportazioen banaketa lurraldeka aurreko epealdien antzekoa izan zen. Alde batetik, herrialde garatuetan salmentak handitu ziren (%3,6) eta, beste aldetik, garapen bidean daudenetan jaitsi (%-11,9), seigarren hiruhilekoz jarraian. Hori dela eta, EAEko esportazioak gero eta gehiago fokatzen ari dira herrialde aurreratuetan, dagoeneko atzerrian saldutako bost euroetatik lau erosten dituztelako. Bereziki deigarria da erregai mineralak bereganatzen duten ehunekoak (saldutako guztiaren %93 ELGEko herrialdeetara bideratzen da), baina baita ibilgailu automobileren eta kautxuak biltzen dutenak ere (biek guztizkoaren %92). Aitzitik, garatzen ari diren herrialdeetara makinariaren (%30 inguru) eta trenbide materialaren (%35) portzentaje handi samarra bidaltzen da.

Hala Europako herrialdeek nola gainontzeko ekonomia garatuek EAEko produktuen erosketak handitu zuten, bi kasuetan hazkunde tasa antzekoa izan zelarik. Izan ere, Europar Batasunera %5,0 gehiago esportatu zen eta Europatik kanpoko ELGEko herrialdeetara, berriz, %4,7 gehiago. Azken horien artean, Japoniako emaitza nabarmendu zen, herrialde horrek oso pisu gutxi duelako EAEko esportazioen egituran, baina ia zuzen erosketak bost zenbakiaz biderkatu du, bereziki ibilgailu automobilak erosiz. Aitzitik, AEBek %15,0eko aldakuntza negatiboa jaso zuen, urte hasieran tamaina bereko gorakadarekin kontraste egiten duena. Erregai mineralen erosketak eragiten ditu gorabehera handi horiek, herrialde horretara gehien esportatzen den produktua horixe delako. Beste muturrean, ibilgailuen salmenta oso bizkor hazi zen (%45,6).



Ohikoa denez, Frantzia eta Alemania izan ziren EAEko produktuen helburu behinenak eta biek areagotu zituzten beren erosketak. Zehazkiago adierazita, Frantziara esportatutakoa %3,4 hazi zen eta beraien artean portaera azpimarragarria izan zuten ibilgailu automobilek (%28,7). Oso bestelakoa izan zen erregai mineralen emaitza, bere prezioa merkatu zenez balioa jaitsi zelako (%-5,2), nahiz eta esportatutako kantitatea %25 gehiago izan zen. Alemaniari dagokionez, gehikuntzaren erritmoa (%7,9) lehen hiruhilekokoaren antzekoa izan zen eta automobilek, herrialde horretara esportatzen den guztiaren erdia baino gehiago biltzen baitute, %26,6ko gehikuntza eskuratu zuten.

### ESPORTAZI OEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2014	2015	2015		2016		
			III	IV	I	II	II
<b>GUZTIRA</b>	<b>9,9</b>	<b>-1,3</b>	<b>-0,2</b>	<b>-2,4</b>	<b>2,4</b>	<b>0,3</b>	<b>5.831.293</b>
ELGE	9,4	1,6	0,2	3,0	7,4	3,6	4.746.267
Europar Batasuna	12,9	0,9	0,9	2,0	7,6	5,0	3.852.409
Frantzia	0,8	5,6	2,9	7,1	7,4	3,4	1.020.160
Alemania	7,0	2,4	-7,1	14,6	7,7	7,9	893.265
Erresuma Batua	11,2	6,8	16,3	6,6	-0,6	-6,7	355.198
Italia	9,9	16,9	6,7	6,8	-3,8	-9,9	285.511
AEB	18,9	0,7	9,4	-3,6	15,3	-15,0	406.000
ELGETik kanpokoak	11,7	-11,0	-1,8	-19,5	-16,7	-11,9	1.085.026

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Txanponaren ifrentzua Erresuma Batua eta Italia izan ziren, aurreko hiruhilekoan bezala erosketak murriztu zituztelako. Ekonomia britainiarrera esportatutakoa guztira %6,7 murriztu zen eta herrialde horretara bereziki esportatzen diren hiru produktu taldeek beren balioa gutxitu zuten. Ibilgailuek (%-1,7) amaiera eman zieten lau hiruhilekoz jarraian eskuratutako %30etik gorako hazkundeei. Italiaren kasuan (%-9,9), pisu gehien duten taldeek hazkunde nabarmenak lortu zituzten, baina burdinaren eta altzairuaren galdaketarako produktuen salmenta txarrek (%-40,0) eta beren manufakturenak (%-14,2) emaitza horiek konpentsatu zituzten.

Garapen bidean dauden herrialdeetan eginiko salmentak berriro jaitsi ziren arren, Txinara esportatutakoa %16,3 areagotu zen. Emaitza horretan eragin handia izan zuten galdaketako manufakturek, Txina merkatu erakargarritzat hartu dutelako. Aitzitik, makineriara lotutako atalek atzera egin zuten aurreko urtean saldutako kopuruaren aldean. EAEko produktuek

arrakasta izan dute beste herrialde batzuetan ere, hala nola Marokon (%63,5) eta Saudi Arabia (%29,2), baina Turkiak pausu bat atzera eman zuen (%-3,6) EAEko esportazioen helburua izateko bidean.

Inportazioei dagokienez, bigarren hiruhilekoan berriro jaso zuten urte arteko jaitsiera garrantzitsua, %9,5 balioan eta %10,9, berriz, tonatan. Beraz, petrolioaren merkatzeak eragin mugatua izan zuen atal horretan eta konpentsatuta geratu zen beste produktu batzuek ezagutu zuten garestitzeekin. Zehazkiago adierazita, inportatu ziren erregai mineralen balioa %36,4 gutxitu zen, baina erositako kantitatea 2015ekoa baino %9,6 gutxiago bakarrik izan zen. Gainontzeko produktuek %2,0ko gehikuntza jaso zuen, garraio materialak (%18,1) eta makinak eta tresnek (%15,3) bizitasun handia erakutsi zutelarik.

Inportazioen jaitsierak eragin berezia izan zuen garapen bidean dauden herrialdeetan (%-27,0), herrialde garatuetan eginiko erroketak 2015ekoak baino apur bat txikiagoak (%-1,1) bakarrik izan ziren bitartean. Portaera ezberdin hori, neurri handi batean, erregai mineralen jatorriak azaltzen du, oso fokatuta dagoelako azaleratzen ari diren herrialdeetan. Izan ere, bigarren hiruhilekoan, produktu horien ia erdia garapen bidean dauden herrialdeetatik inportatu ziren, herrialde horietan erositako guztiaren %38,5 delarik. Aitzitik, herrialde garatuetan eginiko erroketen %14,8 bakarrik dira erregai mineralak, eta erroketak horiek, batez ere, Erresuma Batuan eta Mexikon egiten dira.

## INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2014	2015	2015		2016		
			III	IV	I	II	II
<b>GUZTIRA</b>	<b>9,9</b>	<b>-3,0</b>	<b>-5,7</b>	<b>-1,4</b>	<b>-7,6</b>	<b>-9,5</b>	<b>4.099.381</b>
ELGE	15,0	2,7	-2,3	1,1	-10,4	-1,1	3.032.181
Europar Batasuna	30,3	5,5	-3,0	5,8	-4,5	-5,0	2.518.743
Frantzia	-0,7	11,7	11,2	10,2	-12,0	-5,6	425.245
Alemania	5,9	20,6	32,4	23,8	23,0	9,8	683.492
Erresuma Batua	180,0	15,1	1,9	-14,8	-56,6	-38,6	271.873
Italia	2,9	3,5	0,3	13,3	-2,5	13,1	246.899
AEB	-52,3	2,9	23,4	19,1	-41,4	63,4	134.017
ELGETik kanpokoak	0,9	-14,4	-13,1	-7,8	-1,4	-27,0	1.067.200

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioeko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

EAEko ekonomiaren hornitzaile behinena Alemania izan zen berriro, inportazio guztien %16,7 bertatik ekarri zirelako. Ehuneko hori aurreko bi epealdietan jasotakoaren antzekoa da, baina nabarmen gainditzen du aurreko urteetako. Herrialde horretatik datozen inportazioen egituran bi atal azpimarratu behar dira: makineria eta ibilgailu automobilak. Bi kasuetan, inportazioak oso modu garrantzitsuan handitu ziren. Oso bestelakoa izan zen Frantziaren emaitza, inportazioak, galdaketara lotuagoak baitira, berriro murriztu zirelako.

Oro har, azaleratzen ari diren herrialdeetatik inportatutakoa %27,0 gutxitu zen arren, bi salbuespen azpimarragarri daude portaera horretan. Alde batetik, Errusiako produktuen erosketa %31,1 areagotu zen eta dagoeneko hiru hiruhilekoz jarraian handitu dira, Europar Batasunak herrialde horri murrizketak ezarri zizkion arren. Inportazio horietatik zati handiena erregai mineralak izan ziren. Beste aldetik, Brasilek EAEn eginiko salmentak bikoiztu zituen, baina zenbaki horiek oso txikiak dira. Espero zitekeenaren kontra, gehikuntza hori ez zegoen petrolioari lotuta, haziei baizik. Aitzitik, Txinan eginiko erosketek urte arteko jaitsiera txikia jaso zuten berriro (%-2,9).

Esportazioen eta inportazioen diru kopuruek 1.732 milioi euroko merkataritza saldoa utzi zuten bigarren hiruhilekoan, EAEn aldekoa. 2016ko lehen bi hiruhilekoetako datuen batuketa hartzen badugu kontuan, saldo guztia 3.311 milioi euroetara iristen da, serie historiko osoan seihileko batean inoiz lortu den diru kopururik altuena baita. Saldo hori ia osorik herrialde garatuekin eginiko merkataritzan lortu zen, baina azaleratzen ari diren ekonomiekin ere ekarpen positibo txikia eskuratu zen. Aurreko hiruhilekoetan bezala, energia alorreko produktuen salerosketak saldo negatiboa utzi zuen, kasu horretan 424 milioi eurotako. Aitzitik, gainontzeko produktuek 2.137 milioi euroko superabita ekarri zuten, inoiz jaso den zenbaki gorenetakoa bat delarik.

## Prezioak

Prezioen bilakaera erakusten duten adierazle guztiek balio apalak erakutsi zituzten 2016ko bigarren hiruhilekoan. Alde batetik, BPGaren deflatoarea %0,2 igo zen. Tasa hori aurreko bi hiruhilekoetako emaitzaren oso antzekoa da. Azpimarratzekoa da kanpo merkataritzari lotutako deflatoeen balio negatiboak, %-1,3 esportazioen kasuan eta %-1,5, berriz, inportazioenean. Kontsumo pribatuaren deflatoarea ere negatiboa izan zen (%-0,3). Aitzitik, bai kontsumo publikoaren deflatoeak (%0,5) bai kapital eraketa gordinarenak (%0,4) igoera neurritsuak izan zituzten.

Kontsumoko prezioei dagokienez, KPI indizeak balio negatiboak (%-0,6) jaso zituen bigarren hiruhilekoan, aurreko epealdietako jaitsierak areagotuz. Hala ere, beherakada horiek leundu ziren udako hilekoetan eta irailean, ezagutu diren azken datuak hileko horretakoak baitira, urte arteko aldakuntza tasa %0,3an kokatu zen, abuztuan lortutako %0,1eko igoera finkatuz. Inflazioaren susperraldi hori datozen hilekoetan finkatuko dela aurreikusten da, petrolioaren salneurriak 2015eko amaieran eta 2016ko hasieran bizi zuen jaitsiera biziak eragin zuen maila efektua desagertuko den heinean.

### KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2014	2015	2016			Ekarpena
			I	II	Iraila	
<b>Inflazio osoa (%100)</b>	<b>0,2</b>	<b>-0,3</b>	<b>-0,3</b>	<b>-0,6</b>	<b>0,3</b>	<b>0,3</b>
<b>Azpiko inflazioa (%82,6)</b>	<b>0,3</b>	<b>0,7</b>	<b>1,2</b>	<b>0,8</b>	<b>0,9</b>	<b>0,7</b>
- Elikagai landuak (%14,1)	0,0	1,1	1,7	1,3	0,3	0,0
- Industria ondasunak (%26,6)	0,1	0,3	0,8	0,7	1,0	0,3
- Zerbitzuak (%41,9)	0,6	0,8	1,3	0,8	1,0	0,4
<b>Hondar inflazioa (%17,4)</b>	<b>-0,6</b>	<b>-4,5</b>	<b>-6,8</b>	<b>-7,2</b>	<b>-2,6</b>	<b>-0,4</b>
- Landu gabeko elikagaiak (%6,8)	-1,2	1,9	3,1	2,9	1,0	0,1
- Energia (%10,6)	-0,1	-8,4	-12,8	-13,3	-4,9	-0,5

Iturria: INE.

Hain zuzen ere, Brent motako petrolio upelaren kotizazioak 30 dolarretatik hurbil kokatu zen urte hasieran, Txinan hauteman ziren finantza zurrumbiloen eta AEBetako moteltzearen ondorioz. Hala ere, hilabete batzuk beranduago, lehengai horren prezioak gorantz egin zuen eta irailaren amaieran 50 dolarren ingurura iritsia zen. Igoera horren atzean hainbat arrazoi daude: Txinan eta Indian espero zena baino eskari handiagoa egotea, herrialde ekoizle batzuetan arrisku geopolitikoak egotea, AEBetan petrolio gordinaren izakinak jaitsi izana eta, oso bereziki, LPEEko eta erakunde horretatik kanpoko ekoizleen artean petrolioaren salneurria egonkortzeko akordio bat dagoela iragarri izana, oraindik akordio horren ezaugarriak zehaztu ez diren arren eta herrialde bakoitzaren kuotak nola geratuko diren ezagutzen ez diren arren. Dena dela, upelaren prezioak dagoeneko izan duen igoerak hainbat putzuren irekiera bultzatu du eta pentsatzekoa da etorkizunean egongo den edozein garestitzea konpentsatuta geratuko dela ekoizle berrien eskaintzarekin.

EAEko KPIa (%0,3) eta Euroguneari dagokiona (%0,4) alderatzen direnean, begi bistakoa da petrolioaren prezioak izaten dituen aldaketek eragin handiagoa dutela EAEko ekonomian Europakoan baino, hala merkatzen denean, EAEn aldeko diferentziala handitzen delako, nola garestitzen denean, horrelakoetan kontrako eragina ekarriz. Izan ere, petrolio oso merke egon den bitartean, prezioen arteko aldea sei hamarrenetara iritsi zen, baina irailean, garestitu ondoren, diferentzia hamarren bakar batera mugatu zen.

Energiaz bestelako produktuak albo batean utzita, azpiko inflazioak ere gora egin zuen hirugarren hiruhilekoan eta %0,8tik %0,9ra igaro zen, hiru hilekoz inolako aldaketarik gabe egon ondoren. Bilakaera horretan, portaera kontrajarriak hautematen dira. Alde batetik, industria ondasunek eta zerbitzuek igoerak bizkortu zituzten eta, beste aldetik, landutako elikagaiak hamarren batzuk leundu zituzten igoera. PIVE planaren amaierak industria produktuen salneurria gorarazi zuen eta turismoaren bizitasunak zerbitzuen garestitzean eragina izan zuen. Beste aldetik, hondar inflazioak nabarmen gutxitu zuen bere jaitziera, neurri batean erregaien bilakaerarengatik, baina baita argindarraren garestitzearengatik ere. Talde horretako beste osagaiak, hots, elikagai freskoek, igoerei eutsi zien, baina aurreko hilekoetakoak baino nabarmen txikiagoak izan ziren.

#### EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2015		2016		
			III	IV	I	II	Iraila
<b>Indize orokorra</b>	<b>0,2</b>	<b>-0,3</b>	<b>-0,2</b>	<b>-0,1</b>	<b>-0,3</b>	<b>-0,6</b>	<b>0,3</b>
Janariak eta alkohol gabeko edariak	-0,6	1,4	2,1	2,2	2,4	2,0	0,6
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,0	0,9	0,9	0,9	0,3	0,3	0,4
Jantziak eta oinetakoak	0,2	0,4	0,5	0,5	0,5	0,8	1,0
Etxebizitza	2,0	-1,7	-1,5	-2,5	-5,6	-6,3	-3,1
Etxeko hornidura	-0,4	0,0	-0,4	0,2	0,1	0,4	0,8
Medikuntza	4,3	0,1	-0,1	0,9	1,0	1,0	1,1
Garraioa	-0,5	-4,1	-4,9	-4,1	-3,8	-4,2	0,1
Komunikazioak	-6,1	-1,7	-0,5	0,6	2,2	2,4	2,8
Aisia eta kultura	-1,2	-0,2	0,2	0,1	-0,3	-2,3	-1,6
Irakaskuntza	2,7	2,2	2,6	0,7	0,5	0,5	0,6
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	0,7	0,3	0,4	0,6	1,2	1,1	1,0
Besteak	1,2	1,7	1,6	1,8	1,8	1,5	2,0

Iturria: INE.

Kontsumo prezioen indizea osatzen duten taldeei dagokienez, urte arteko aldakuntza tasa txikiak petrolio gordinarekin harreman estuena duten taldeek aurkeztu zuten berriro, hots, garraioak (%0,1) eta etxebizitzak (%-3,1), aisialdia eta kulturarekin batera (%-1,6). Hala eta guztiz ere, lehen bi talde horiek leundu zituzten jaitsierak abuztuan eta irailean, eta haien dira, hain zuzen ere, hileko horretan indize orokorraren igoerari ekarpen handiena egin zituztenak. Gainontzeko taldeek prezioak igo zituzten abuztuan. Beraien artean, komunikazioen tasa (%2,8) azpimarratu behar da, %2,0ko erreferentzia gainditzen duen talde bakarra delako. Horrekin batera, badaude %1,0eko tasaren inguruan kokatuta dauden beste hiru talde ere.

Industria alorreko prezioek ere bat egin zuten salneurrien goranzko joera orokorrarekin, nahiz eta beren aldakuntza tasak oraindik negatiboak diren (%-3,3 abuztuan). Industriaren sektore handiak aztertuta, alde nabarmena hautematen da batzuen eta besteen portaeran. Esate baterako, energiako produktuek oso merkatze garrantzitsua (%-11,7) izan zuten eta bitarteko ondasunek ere, beste lehengai batzuei lotuta baitaude, salneurria jaitsi zuten, baina gutxiago (%-2,6). Oso ezberdina izan zen ekipamendurako ondasunen (%1,1) eta kontsumokoien (%0,8) portaera, balio positiboak jaso zituztelako.

Azkenik, hitzarmen kolektiboei dagokienez, azpimarratu behar da EAEn adostu den soldata igoera oraindik apala dela, nahiz eta aurreko bi urteetan adostu ziren gehikuntzen aldean nolabaiteko igoera hautematen den. Dena dela, argitaratu den informazioa oraindik ez da oso esanguratsua langile kopuru txiki bati bakarrik egokitzen zaiolako. Horren arabera, aurtengo hilekoetan sinatu diren hitzarmenek aurreko urteetan izenpetu ziren baina aurtan ere indarrean dauden hitzarmenen baina igoera zertxobait handiagoa adostu dute. Beste aldetik, ez dago alderik sektoreetan eta enpresetan sinatutako hitzarmenen igoeren artean.

#### HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2014	2015	2016 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	2,7	1,3	0,7	0,6	1,0
- Urtean zehar sinatutakoak	2,0	1,0	0,5	0,8	1,2
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	2,7	1,3	0,8	0,6	1,0
- Enpresako hitzarmenak	2,6	1,2	0,6	0,6	1,0

(\*) 2016ko abuztu arte erregistratutako hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

## Aurreikuspenak

Consensus Forecastek munduko ekonomiarentzat irailean egin zituen aurreikuspenek %2,4ko eta %2,8ko hazkundeak ezarri zituzten 2016rako eta 2017rako, hurrenez hurren, aurreko hilekoetan ezagutarazi zituenen aldean aldaketa gutxirekin. ELGEk, berriz, beherantz eguneratu ditu munduko BPGaren aurreikuspenak eta %2,3ko hazkundera aurreikusi du 2016rako eta ekonomia %2,8ra igoko da 2017rako. Aurreikuspen globaletan oraindik dauden arriskuak beheranzkoak dira bereziki. Alde batetik, azaleratzen ari diren ekonomietan moteltze orokorreko prozesuak aurrera jarraituko du, Txinako ekonomiak bizi duen berrantolaketak lideratuta. Ekonomia aurreratuei dagokienez, kezka iturria dira haietako askotan dagoen hazkunde apala, eskaria ahula dutelako, prezioen maila txikia eta AEBetako moneta baldintza egokitzailak urratsez urrats uzteko asmoa. Euroguneko ekonomiak Brexitaren aurrean izango duen erantzuna lurralde horretako etorkizuneko hazkunderentzat arrisku handia da, gaur arte eragin horiek nabaritu ez badira ere.

### EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2015	2016	2017	2015	2016	2017
Munduko ekonomia	2,9	2,4	2,8	2,0	2,7	2,8
AEB	2,6	1,5	2,3	0,1	1,2	2,2
Kanada	1,1	1,2	2,1	1,1	1,6	2,1
Japonia	0,6	0,6	0,8	0,8	-0,2	0,4
Eurogunea	1,9	1,5	1,3	0,0	0,2	1,3
Europar Batasuna	2,3	1,7	1,3	0,0	0,3	1,5
Alemania	1,7	1,8	1,2	0,3	0,4	1,5
Espainia	3,2	3,0	2,1	-0,5	-0,4	1,2
Frantzia	1,2	1,4	1,2	0,0	0,2	1,2
Herbehereak	2,0	1,6	1,5	0,6	0,4	1,3
Italia	0,8	0,8	0,8	0,1	-0,1	0,8
Erresuma Batua	2,2	1,7	0,7	0,0	0,7	2,3
Asia eta Ozeano Barea	4,8	4,6	4,6	1,6	1,7	2,0
Ekialdeko Europa	0,2	1,3	2,3	8,2	5,4	5,0
Amerika Latinoa	-0,2	-0,5	2,0	10,9	16,3	9,7

Iturria: Consensus Forecast (2016ko iraila).

Consensus Forecasten arabera, Estatu Batuetako ekonomia %1,5aren inguruan haziko da 2016an eta %2,3ra bizkortuko da 2017an. Munduko ekonomiarik handienean indar kontrajarriek jokatuko dute. Alde batetik, dolar indartsu batek eta munduko eskari ahulak eragina izango dute AEBetako esportazioetan. Halaber, hauteskunde prozesuaren ziurgabetasunak ere epe laburreko aurreikuspen ekonomikoetan eragina izango du. Beste aldetik, lan merkatu sendoak, soldata errealen igoerak eta kontsumitzaileen konfiantza altuak herrialde hartako barne eskaria sendotuko dute. Interesgune handienetako bat Erreserba Federalaren moneta politikaren bilakaeran datza, interes tasak igotzeko erabakia ekonomia sendo dagoelako ziurtasuna eduki arte atzeratzen ari delako.

Eurogunearen bizitasunak neurritsua izaten jarraituko du. Hazkunde aurreikuspenak bere horretan utzi dira edo zertxobait beherantz zuzendu dituzte aurreikuspenak egiten dituzten erakunde gehienek. Euroguneko ekonomia hazkundeaz Consensus Forecastek argitaratu duen azken buletinak %1,5ean kokatu du 2016ko hazkundera eta %1,3an, berriz, 2017koa. ELGEk, berriz, hazkunde egonkorra baina neurritsua aurreikusi du, *hazkunde apaleko tranpa* deitzen duen testuinguru batean. Erakunde horrek %1,5ean kokatu du 2016ko gehikuntza tasa eta %1,4an 2017koa. Brexitaren eragina Euroguneko ekonomian ziurgabetasun handiko iturria da eta iragarrienez eragin negatiboak ageriago geratuko dira 2017an. Hala eta guztiz ere, eragin handiena Erresuma Batuan nozituko dela iragarri da. Izan ere, ekonomia hori aurreko %1,7 haziko da, baina datorren urtean %0,7ra mugatuko du bere hazkunde tasa. Iheslarien krisia ere arrisku behinenetako bat izango da eremuaren etorkizunean.

Espanian, hazkunde aurreikuspena %3,0aren inguruan kokatu da 2016ko batez besterako. Datorren urterako, aldakuntza tasa hainbat hamarren motelduko da eta batez bestekoaren inguruan dauden aurreikuspenen dispersioa zabaldu da. Izan ere, Funcas-eko panelaren adituek %1,9aren eta %2,6aren artean kokatu dute hazkundera. Panelaren batez bestekoa %2,3an dago. Bide beretik, Consensus Forecastek kalkulatu du espainiar ekonomiaren hazkundera 2017an %2,1 izango dela. Moteltzea, batez ere, nazio eskariaren eta, neurri txikiagoan, kanpo saldoak BPGaren gehikuntzari egingo dion ekarpen txikiagoren eskutik iritsiko da. Hiruhileko arteko terminoetan, hazkundeak oraindik positiboak eta esanguratsuak izango direla, %0,5aren ingurukoak, espero da.

Lan merkatuari buruzko igurikimenak zertxobait hobetu dira aurreko txostenetan argitaratu zirenen aldean. Esate baterako, Funcas-eko panelean parte hartzen dutenek, batez beste, enpleguaren hazkundera 2016an %2,8 eta 2017an, berriz, %2,1 izango dela zehaztu dute. Beste aldetik, langabezia tasa beherantz zuzendu da eta 2016ko langabezia %19,8 izango dela aurreikusi da, 2017an %18,3ra jaisteko.



**ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2016ko iraila)**

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016		2016	2017				2017
	III	IV		I	II	III	IV	
<b>BPG</b>	<b>2,8</b>	<b>2,2</b>	<b>2,9</b>	<b>1,8</b>	<b>1,6</b>	<b>1,8</b>	<b>2,3</b>	<b>1,9</b>
Kontsumo pribatua	2,9	2,2	3,1	1,6	1,4	1,5	1,8	1,6
Kontsumo publikoa	0,2	1,0	0,9	1,0	1,1	1,3	1,4	1,2
Kap. finkoaren eraketa gordina	3,6	2,8	3,9	3,3	3,2	3,9	5,1	3,9
- Inbertsioa ekipamenduan	6,5	4,0	6,8	3,4	2,4	2,9	5,2	3,5
- Inbertsioa landutako aktibotan	8,3	9,9	8,5	10,7	11,1	9,9	8,6	10,1
- Inbertsioa eraikuntzan	2,1	2,3	2,4	3,5	3,6	4,2	4,7	4,0
Barne eskaria	2,4	2,2	2,9	1,6	1,7	2,1	2,6	2,0
Esportazioak	6,3	5,2	5,5	5,1	4,5	4,5	4,8	4,7
Inportazioak	5,1	5,1	5,6	4,5	5,1	5,5	5,8	5,2

Iturria: CEPREDE.

Eustatek argitaratu dituen hiruhilekoko kontu ekonomikoak eta berriki ezagutu den koiunturako informazioa kontuan hartuta, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailak EAEko ekonomiaren taula makroekonomikoa berrikusi du 2016rako eta 2017rako. Lehenengo urterako, lau hamarrenetan igo da hazkunde aurreikuspena eta orain %2,9an kokatu da urte osorako batez besteko gehikuntza tasa. Datorren urterako, berriz, hazkunde tasa %2,2an egongo dela aurreikusi da, deflatoarea %1,2 izango delarik.

Barne eskaria izango da EAEko ekonomiaren motorra kontuan hartu den epealdi osoan zehar eta BPGaren hazkundeari egingo dion ekarpena 3,0 puntukoa izango da 2016an eta 2,2 puntukoa 2017an. Enplegua sortzeko giroak, inflazio apalak eta interes tasa baxuek familiek kontsumoan eginiko gastuari lagunduko diote. Enpresen inbertsioak ere bizitasuneko zantzuak erakutsiko ditu oraingo taula makroekonomikoan kontuan hartu diren hiruhilekoetan eta hazkunde tasa esanguratsuak eskuratuko ditu beraietan. Beste aldetik, kanpo eskariak EAEko barne produktu gordinaren hazkundeari egingo dion ekarpena hobetuko du aurreikuspeneko denboraldi osoan, baina neurri txiki batean.

Eskaintzari dagokionez, oraingo aurreikuspenaren arabera jarduera adar guztiek, lehen arloak 2017an izan ezik, ekarpen positiboak egingo dizkiote EAEko balio erantsi gordinari datozen hiruhilekoetan. Urte osoko batez bestekoan, industriaren aldakuntza tasa %2,8an kokatuko da

2016an eta %2,1ean, berriz, 2017an. Eraikuntzak hazkunde neurritsuak lortuko ditu, baina zeinu positibokoak. Azkenik, zerbitzuek hazkunde biziko joera erakutsiko dute eta dinamismo handieneko sektorea izango da.

#### EAE-KO EKONOMI ARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2016ko urria)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016		2016	2017				2017
	III	IV		I	II	III	IV	
<b>BPG</b>	<b>2,8</b>	<b>2,5</b>	<b>2,9</b>	<b>2,0</b>	<b>1,9</b>	<b>2,2</b>	<b>2,5</b>	<b>2,2</b>
Azken kontsumoa	2,7	2,2	2,8	1,8	1,6	2,0	2,0	1,9
Kontsumo pribatua	2,9	2,5	3,0	1,9	1,8	2,1	2,1	2,0
Kontsumo publikoa	1,8	1,2	2,0	1,5	1,3	1,4	1,5	1,4
Kapital eraketa gordina	3,4	3,0	3,4	2,7	2,4	2,7	3,2	2,7
Barne eskariaren ekarpena	2,9	2,5	3,0	2,1	1,9	2,2	2,5	2,2
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,1	0,0	-0,1	-0,1	0,0	0,0	0,0	0,0
Lehen arloa	3,3	5,0	5,7	-0,4	1,1	-6,3	-7,1	-3,2
Industria eta energia	2,1	1,9	2,8	1,7	1,5	2,4	2,7	2,1
Eraikuntza	2,3	1,7	1,6	1,1	1,1	1,8	2,4	1,6
Zerbitzuak	3,0	2,6	3,0	2,2	2,1	2,4	2,7	2,4
Balio erantsi gordina	2,8	2,4	2,9	2,0	1,9	2,3	2,6	2,2
ekoizkinen gaineko zergak	2,9	2,7	3,0	2,1	2,0	2,3	1,9	2,0
BPGaren deflatorea	0,6	1,0	0,5	1,0	1,1	1,2	1,3	1,2
Enplegua	1,8	1,7	1,8	1,5	1,4	1,7	1,7	1,6

Iturria: Ogasun eta Finantza Saila.

Lan merkatuari buruzko aldagaien berrikusketak %1,8an jarri du enpleguaren gehikuntza tasa 2016an eta %1,6an datorren urtekoa. Azkenik, prezioek goranzko norabidea hartuko dute eta kalkulua egin den epealdiaren zati nagusian BPGaren deflatoreak %1,0ko langa zertxobait gaitutuko duela aurreikusi da.